

# EGUARRI JAIAK ERRENDERIN

XABIER



Eguarri jaiak gai arturik, eta auen ondoren diran Urte-zar, Urte-berri ta Errege egunetan izan ziran egintzen bilduma azaldu nai nizueteke nere lerro auetan.

Gure errian, jai auek, ludiko guzietan bezela, berezitasun bat dute errikoi ta sendiartekoak diranez. Erri bakoitzak bere nortasuna azaltzen du alik eta ondoen jai auek ospatzeko, ta Errenderi ez zan atzean gelditu gai ontan. Bertako Elkarateak zeñiek baño zeñiek obe-toago, bere eginkizuna azaldu nai izan zuan.

Jai auetako giroak asiera berri bat izandu zuan. Xenpelar aretoaren xapaldan, Deun Tomas igandea zalarik, «Orereta Ikastola Elkarateak» eratuta, txistor mazketa izandu zan goiz ta arratsaldean. Bertan jende asko ibilli zan, janari oneri arrera ona emanaz. Prestatzaileak lan ugari izandu zuten inguratzen ziran guziei bear zan eran beren mokatxoak gertatzen.

Gabon egunean erritik zear «Ibaika» ta «Ereintzako» gaztetxo taldeak alaitu zituzten gure karrika be aldekoak, Beraun, Galtzaraborda, Alaberga... Beste ballaretan ere bertako gizarteak antolatu zituzten beren abestiekin goiz alaitasunez Eguberriari dei egiñaz.

Gauean «Olentzero» izandu zan talde guzien nagusi. Goizean bezela, erriko leku danetan berari dagozkion abestiak abestuaz, abeslari talde ugariak, zar eta gazteak elkarturik, txistu ta aspo soñua lagun zituztelarik, Eleiz atarian azken agurra egin zan.

Jendeak enparantza guztia bete zuan une artan eta baita ere ederki asko abestu «Ator, mutil», «Olen-tzero» eta abar, azkenik «Agur Jaunak» sendo ta gartsu batekin bukatuaz. Zoragarria benetan azken agur au, bertan bildurik erriko Elkarte ta erritar guziak, gure antziñako oitura oneri maitekor erantzunaz.

Eguarri goizean ballaretako Jaiotzak guztiei beren zorion agurrak egiñaz, poz eta pakea opatuaz. Meza Nagusi ondoren, eguardian, Kontsejupean, «Eresi Ja-kintza Elkartek» saio berezia; egunari zagokion bezela, Eguarri eresiak joaz, tartean euskaldunak ere bai.

Illaren ogeitazazpian «Euskal Eguarri Abestiaren» sariketa «Ereintzak» eratuta, inguruko abeslari taldeak bertan ziralarik. Bederatzi talde bildu ziran ta bakoi-tzak bi abesti abestu ondoren, onela gelditu zan sari-keta: Garaille «Errenderiko Gartsuak», bigarren «Onda-rrabiko Amuitzak», irugarren «Altzako Neskatz Alai», laugarren «Arraguako Aldeguna». Bildu ziran guziak abeslari trebeak ta jendea atsegiñez beterik egon zan sariketa au entzuten eta txalo ugariak izan ziran gu-zientzat.

Urte-zar gauean, aurreko urtean bezela, gure errian galduta zegon oitura zar bat berritu zuten «Dios te Salbe» egunari dagokion bertsoakin. Gazte ta gaztetxo taldeak abestu zituzten Urte-zarrari agur egiñaz eta Urte-berriari zorion eta pakea eskatuaz.

Urte-berri goizean Meza Nagusi ondoren txistulari saioa Kontsejupean. Eresi alai ta zoragarriak benetan an entzun genituanak.

Ilbeltzaren lauean dantzaldi saio berezia Don Bosko Antzokian, «Iraultza» dantza taldeak eratuta, ingurue-tako dantzariak bertan ziralarik.

Egun berean eta urrengoan On-bide zineman, euskal abesti saioa, Xabier Lete abeslari izanik. Jendetza ugaria, gazteak gallen zirala.

Errege egun bezperan, Orienteko Aztien ibillaldia, «Beraungo Elkartek» antolatua. Ura umetxoen poza Meltxor, Kaxpar ta Baltaxar ikusirik... beren asmo goxo ta naiak beteak izango ziran itxaropenarekin.

Jai auen giroan «Ibaika Elkartek» diska ta liburu azoka izandu zuan, ta baita ere itzaldiak garrantzizko gaiak erabilliaz.

Bere aldetik «Sendiko Aiten Elkartek» eratu zuan sariketa berezi bat Ikastoletako gaztetxoen artean, marrazki, idazketak eta Jaiotzak gai ziralarik. Jaiotzak ugari izan ziran eta beren erakusketa Xenpelar aretoan izandu zan, azaldurik gaztetxoak Eguarri gaietan daukaten nortasuna.

Eta ona emen nola igaro ziran egun errikoi ta mai-tekor auek: Gazteen eta zarren batasuna ikusirik, eta Erriko Elkarte artean oitura zarrak nork baño nork obetoago azaldu nairik.

*Zuentzako nere zorionak  
Errenderiko Elkartek  
Zuen asmoak ikusirikan  
Eguarrietan jendeak  
Azaldurikan gure aitonen  
Abesti ta oitura zarrak  
Jarrai aurrera gazte maiteok  
Ez utzi artutako lanak  
Ta eskertuko dizute beti  
Gurea dan Euskal Erriak.*

